

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Borondatezko epean biltzea 2019ko zergak eta tasak

Nik, Natividad Lopez de Munain Alzolak, Burgeluko Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: abuztuaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, 2019ko ordainarazpen hauek:

– Ur hornidura, estolderia eta arazketa zerbitzuaren tasa, 2019ko 1. seihilekoa.

A) Borondatezko epea: 2019ko abuztuaren 15etik urriaren 15era.

B) Premiamenduzko epea: azaroaren 16tik aurrera; egun horretatik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errenergua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Dirubilletako Erregelamendu Orokorren arabera.

Ordaintzeko lekua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideraturik ez daukatenek borondatezko epean (irailaren 15etik azaroaren 15era) ordaindu beharko dute, Kutxabankek Dulantzian duen sukurtsalean (Dulantzi kalea, 11), bulegoko orduetan.

Gomendioak

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Burgeluko udaletxean izapidetu behar dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Burgelu, 2019ko abuztuaren 21a

Alkatea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA